



Arartekoaren 2018R-2066-16 Ebazpena, 2018ko apirilaren 24koa. Horren bidez, Lanbideri gomendatzen zaio erabaki hauek berrazter ditzala: herritar bati diru-sarrerak bermatzeko errenta aldi baterako eteteko ebazpena eman izana eta bidegabe jasotako zenbateko batzuk erreklamatu izana.

Aurrekariak

1. Herritar batek Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen ez zegoelako ados Lanbideren 2016ko otsailaren 20ko ebazpenarekin; horren bidez, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria eten zizkion erakunde horrek.

Lanbidek betebeharrak ezarri zion interesdunari, honako arrazoi hauek zirela tarteko:

“Ondasun higiezinaren bat izatea jabetzan, ohiko etxebizitzaz gain.”

Halaber, egun horretan bertan, Lanbidek kexagileari aurreratu zion igarri zutela zenbateko bat bidegabe jaso zuela, hain zuzen ere 30.193,10 euro. Halaber, erakunde horrek adierazi zion prozedura abiarazteko komunikazioa jakinaraziko ziotela (hartu-agiriarekin) eta informazio zehatza bilduko zuela horrek. 2016ko ekainaren 29an jaso zuen jakinarazpen formalak (2016/REI/028933).

2. Kexagileak adierazi zuen ez zettorrela bat prestazioa eten eta bidegabe jasotako zenbatekoak erreklamatu izanarekin. Horretarako, 2016ko ekainaren 29an, alegazioak aurkeztu zituen Lanbiden, eta 2016ko urriaren 21ean, kexa bat jarri zuen Arartekoan.

Idea hauek zeuden bi desadostasun horien oinarrian: batetik, kexagileak higiezin horren jabetza 2009an jakinarazi izana etxebizitzaren arloan eskumena zuen sailari; eta, bestetik, Lanbidek prestazioa eten eta bidegabe jasotako zenbatekoak erreklamatu izana justifikatzeko arrazoi gisa aipatu izana kexagileak jabetzan zuen ondasun higiezinaren benetako balioa erakundeak esandakoa baino askoz ere txikiagoa zela (zenbait enbargo eta zor baitzeuzkan ordaintzeke) eta, gainera, ezinezkoa zela hor bizitzea edo hura baliatzea, haren ezaugarri bereziak zirela medio: trenkadarik gabeko espazio garden soila zen, eraikin bateko atariaren parean zegoena, pilare artean; hala dela egiazta daiteke kexagileak espedientearekin batera helarazitako argazkiak ikusita.

Beraz, espazio itxia eta jarduerarik gabea zen; izan ere, kexagileak ezin izan zuen leku horretan abiarazi ogibide gisa aurreikusitako autoenplegu- eta ekintzaitelaz-jarduera (zehazki, aldizkari- eta gozoki-denda), ezin zelako horrez itxi, eraikuntza bolumena agortuta zegoelako eta bizilagunen komunitatea proiektuaren aurka





zegoelako. Gainera, ondasun horrek zituen kargen eta krisi ekonomikoaren ondorioz, interesdunak ezin izan zuten hura saldu, ahaleginak egin arren.

Bestalde, kexagileak bere idazkian nabarmendu zuten ohiko etxebizitza propiorik ere ez zuela, eta arrebak mailegatutako etxe batean bizi zela. Izan ere, kalteberatasun handiko egoera sozioekonomikoan dago herritar hori.

3. Azaldutakoa aintzat hartuta, Arartekoak azaldutako egitatei buruzko informazioa eskatu zion Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari, aurreko lerroetan jasotako argudioak emanez.
4. Bidegabe jasotako zenbatekoen erreklamazioari buruzko lankidetzak eskaerari erantzunez, Lanbideko zuzendari nagusiak txosten bat bidali zigun eta, han, egindako gogoetak kontuan hartuz, honako hau adierazi zigun kasuari buruz:

Interesdunaren espedientea ikusita, egiaztatu da pertsona horrek ondasun higiezin baten titulartasunaren %100 duela, eta horrek sortu dituela jasotako okerreko zenbatekoak. Ildo horretan, adierazi behar da organismo honek maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 9.3 artikuluan ezarritakoa zorrotz bete zuela. Artikulu horrek dioenez, beharrezkoa da ohiko etxebizitzaz gain beste ondasun higiezin bat ez izatea. Bere idazkian, Arartekoak adierazten du ohiko etxebizitza arau horretatik kanpo geratzen dela, aparteko balioa duenean izan ezik. Gainera, arau horren ex novo interpretazio bat egiten du, jarraian deskribatutako tesia azaltzeko: Arartekoaren iritziz, ohiko etxebizitza ez diren eta balio txikia duten ondasunak ohiko etxebizitza ez diren ondasun higieziari buruz aurreikusitako salbuespenen artean sartu beharko lirateke.

Dena den, interpretazio hori ezin da aintzat hartu, betiere, lege-agindu batek (edo arau-agindu batek) salbuespen hori beren beregi jasotzen ez badu. Lanbidek uste du prestazioen titularra den pertsona batek, ondasun higiezin baten titulartasunaren % 100 badu, ez duela prestazioak eskuratzeko baldintzetako bat betetzen; hain zuzen, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 16.b) artikuluan xedatutakoa. Beraz, pertsona horrek ez du DSBE jasotzeko eskubiderik. Hau da, Lanbide ez dator bat Arartekoaren iritziarekin, eta erabilgarritzat jotzen du Ruiz Carretero jaunak Laredon duen ondasun higiezina.

Azkenik, bidegabeki jasotako zenbatekoak direla-eta aurkeztutako errekurtsuari dagokionez, adierazi behar da partzialki onetsiko dela; hain zuzen, 2012ko martxoaren 1etik aurrera bidegabeki jasotako zenbatekoak soilik erreklamatu zaizkio, aurreko denboraldiak preskribatu egin baitira. Horrenbestez, bidegabeki jasotako zenbatekoa 28.968,28 eurokoa da, eta ez 30.193,10 eurokoa, errekurtsioa aurkeztutako ebazpenean adierazitako zenbatekoa, alegia”

Kexagileak diru-sarrerak bermatzeko errenta eten ziotela-eta jarri zuten aukerako berraztertze errekurtsioa 2016ko irailaren 23an ezetsi zuten Lanbidek.





5. Beharrezkoak diren egitateak eta zuzenbide-elementuak ditugula uste dugunez, honako gogoeta hauek egin ditugu:

Gogoetak

1. Lanbidek kexagilearen diru-sarrerak bermatzeko errenta eten zuen 2016ko otsailaren 20ko ebazpenaren bidez, arrazoi hau zela eta: *“Ondasun higiezin bat izatea jabetzan, ohiko etxebizitzaz gain.”* Izan ere, horrek esan nahi du ez duela betetzen diru-sarrerak bermatzeko errenta eskuratzeko betekizunetako bat, 147/2010 Dekretuaren 9.3.b) artikulua araberara.
2. Horrez gain, 147/2010 Dekretuaren 24.1. artikuluan adierazitakoari jarraituz, herritar hori ezin da eskubidearen titular izan, hau xedatzen baitu artikulua horrek: *“Diru-sarrerak bermatzeko errenta lortzeko, titularrak edo bizikidetzaren unitateko beste edozein kidek ez du jabetzan izango inolako ondasun higiezinik, 9. artikulua 3. paragrafoa b) idatz-zatian aurreikusitako salbuespenekin”.*
3. Hala ere, manu horren 4. artikulua ondorio desberdinak xedatzen ditu interesduna bakarrik higiezin baten zati baten titular denerako edo ezarritako egoerengatik jabetzako ondasun horien gozamina mugatuta dagoenerako:

Jabetzaren osotasuna ez duten higiezinak baditu edo jabetzako etxebizitzaren luperketa mugatuta badu inposatutako usufruktu-egoeren edo horien parekagarrien ondorioz, eta beraz nekez baliatu daitezkeen ondasunak badira, ondoko balorazio-erregelak aplikatuko dira:

Legegileak ondasun higiezinak baloratzeko zenbait arau xedatzen ditu, interesdunak haien jabetza osoa ez duenerako eta horien gainean gozamen-eskubidea edo hura erabiltzeko nahiz han bizitzeko benetako eskubideak eratu direnerako. Bukatzeko, hau adierazten du:

Edozein kasutan, paragrafo honetan aipatzen diren ondasunak ondasun higigarritzat hartuko dira ondarea kalkulatzeko, eta dekretu honetako 9.3.c) artikuluan ezarritako muga aplikatuko da.

Beraz, aplikatu beharreko araudiaren arabera, mota horretako ondasun bat edukitzeak pertsona batek benetan dituen baliabideetan izan dezakeen eragina kalkulatzeko modu berezi bat dago, diru-sarrerak bermatzeko errenta jaso ahal izateko. Gainera, kasu batzuetan, jabetzak baloratzeko eta horiek ondasun higigarritzat hartzeko zenbait arau daude. Arartekoaren iritziz, espediente honetan arau horiek aplikatu beharko lirarteke.

Hau da, legegileak kontuan izan zuen nekez baliatu daitezkeen ondasun higiezin bat diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea sortzeko oztopo bihurtu daitezkeela, gainerako betekizunak bete arren. Eta diru-sarrerak bermatzeko errentarekin bateraezina den ondasun higiezinak nekez baliatu daitezkeela frogatzen den kasuetan,





baliteke ondasun bat jabetzan izatea prestaziorako eskubidearekin bateragarritzat jotzea, hura ondasun higigarritzat hartuz ondarea kalkulatzeko orduan.

Hizpide dugun espedientean, kexagileak jabetzan duen lonjak 20.401,71 euroko katastro balioa du, eta balio hori jabetzan dituen beste baliabideekin batera zenbatu beharko litzateke. Horien guztien baturak ez du maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 9.3.c) artikuluan ezarritako muga gainditzen; beraz, interesdunak diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularra izateko betekizunak betetzen ditu.

4. Bestalde, Lanbidek berak ere, 2017ko maiatzean argitaratutako irizpideen dokumentuan, ondareari buruzko atalean, aurreikusten du balio urriko higiezin bat izan daitekeela jabetzan, ohiko etxebizitzaz bestelakoa. Erakunde horrek ezartzen du, horrelakoetan, ondasuna ez dela higiezintzat joko, prestazioa ukatzeari dagokionean, baldin eta higiezina bizitegi gisa erabiltzen ez bada eta 10.000 € baino gutxiagoko balioa badu.

Horri dagokionez, kexagilearen lonjak 10.000 euroko baino gehiagoko balioa izan arren (20.401,71 €), 42.412,89 euroko kargak eta zorrak ditu. Hori egiaztatzeko, dokumentazio hau baliatu da: Laredoko jabetza erregistroak igorritako ondasun higiezinari buruzko ohar soila; Laredoko Udalak igorritako uren udal zerbitzuaren ziurtagiria, hiriko OHZ eta premiamendu-probidentziaren ziurtagiria (Udaltzaingoarena); Bizkaiko Foru Aldundiak igorritako datu fiskalen ziurtagiriak; eta Laredoko lehen instantzia eta instrukzioko 2. epaitegiak igorritako diruzko exekuziorako autoa eta dekretua. Horrenbestez, erakunde honen iritziz, interesdunak ondasun hori jabetzan izateak ez dakar bizikidetzaren unitatearen ahalmen ekonomikoa handitzea. Izan ere, aintzat hartu behar da kexagileak ez duela diru-sarrerak bermatzeko errentaz besteko baliabiderik bere oinarritzko premiak asetzeko.

Erakunde honen ustez, kexagileak diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko baldintzak betetzen ditu, bere ondasunak gaur egun 42.412,89 euroko baino gehiagoko karga baitu, eta bere katastro-balioa 20.401,71 euro baita, hau da, ez baitu gainditzen maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 9.3.c) artikuluan ezarritako muga hau: *“Dauzkaten dirua, tituluak, baloreak, ibilgailuak eta, oro har, dekretu honetako III. kapituluko 4. sekzioan aipatutako beste edozein ondasun higikor gehienez ere honen zenbatekoak izatea: erabateko baliabiderik ezaren kasuan bizikidetzaren unitateko kideen guztizko kopuruaren arabera legokiekeen diru-sarrerak bermatzeko errentaren urteko zenbatekoaren lau halako”*.

Arartekoak adierazitako lege xedapenen inguruan egindako interpretazioak murriztapen gutxiago biltzen ditu, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 4.2. artikuluan ezarritakoarekin bat eginez. Espedientean jasotako datuak eta herritar horren gizarte bazterketako egoera aintzat hartuta, horixe da egin daitekeen interpretazio bakarra, eta, gainera, bat dator Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 1. artikuluan ezarritakoarekin.





5. Azkenik, aintzat hartu beharra dago Lanbide, gainera, jasotako prestazioak itzultzeko eskatzen ari zaiola. Izan ere, erakunde horrek pentsatzen du kexagileak ez dituela diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularra izateko baldintzak betetzen lokal horren jabea delako; hori dela eta, prestazioak bidegabe jaso zituela jo du eta 28.968,28 € erreklamatu dizkio.

Arartekoaren iritziz, aipatutako baldintzetan ondasun horren titular izateak ezin du ekarri gizarte bazterketako egoeran dagoen pertsona bati diru-sarrerak bermatzeko errenta etetea edo iraungitzea; izan ere, nekez balia daiteke ondasun higiezin hori, eta egiatan duen balioak ez dakar jabearen ahalmen ekonomikoa handitzerik. Gauzak horrela, ez dago justifikatzerik herritar horri diru-sarrerak bermatzeko errenta gisa kobratu zituen zenbatekoak erreklamatzeari.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten diogu Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Erabaki hauek berrazter ditzala: kexagileari diru-sarrerak bermatzeko errenta aldi baterako eteteko ebazpena eman izana eta bidegabe jasotako zenbateko batzuk erreklamatu izana. Izan ere, herritar horrek diru-sarrerak bermatzeko errentaren jasotzeko eginbeharrak eta baldintzak betetzen ditu.

